



## BIRIKLETA

### IRABAZI ITURRIAK

Gure helburua gaitxotasunaren ikerketa bultzatzeko etekinak lortzea da. Argi utzi nahi dugu elkartearen helburua ez dela irabazi ekonomikoa lortzea, gizartearentzat onuragarria den lan bat egitea baizik. Elkartea martxan jarri eta biriketako minbiziaren ikerketa bultzatzeko lortuko ditugun irabazi iturriak honako hauek izango dira:

Diru-laguntzen gaiari dagokionez, Pili Alberdirekin, Zumaiako Udaleko gizarte zerbitzuetako arduradurarekin, harremanetan jarri gara Zumaiako Udalak ahalbidetzen dituen aukerak ezagutzeko. Jakinda 14.600€ inguruko partida izango dugula Zumaiako Udalaren bidez proiektua aurrera eramateko 3.000€ diru-laguntza lortzeko aukera izango genuke.

Bestalde, Kutxa Fundazioaren deialdiaren helburua elkarrekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeei euren proiektuak bultzatu eta garatzen laguntzea da. Horregatik, BIRIKLETA elkarteak 1.200€ diru-laguntza bat jasoko luke.

Gainera, Gipuzkoan herriz herriko txirrinda lasterketa antolatzeko asmoa dugu. Hau, ekintza solidario bat izateaz gain kirolaren esparruari lotuta dagoen jarduera bat da. Horregatik, Foru Aldundiaren aldetik ere diru-laguntza bat izango dugu, 1.800€ hain zuzen ere.

Horrez gain, honako estekan topatu dugu Urola-Kostako Udal Elkarteak eskeintzen duen laguntzaren inguruko informazioa:

<http://www.urolakosta.eus/eu/web/urolakosta-agentzia/enpresa-sortzeko-laguntza>

Elkartea martxan jartzeko gutxi gora-behera 14.600€ behar izango ditugula aurreikusten dugu. Laguntza honi esker, proiektuari hasiera emateko egin beharreko inbertsioaren zati handi bat ordaintzera iritsiko ginateke.



## BIRIKLETA

Aipatutako lasterketan parte hartu ahal izateko, partaide bakoitzak 25€ ordaindu beharko ditu. Prezioaren barne egongo dira dortsala, kamiseta, elikagaiak, freskagarria eta lasterketa amaitu ondoren egingo den zozketa baterako sarbidea.

Bezeroen dohaintza ezagutu ezin daitekeen zifra bat izanik, ez dago jarduera honekin lortuko dugun sarrera kopurua aurreikusterik. Diru hori biriketako minbiziaren ikerketari zuzendua egongo denez, zifra ez ezagutzeak ez du oztopatuko gure proiektuaren sorkuntza eta ibilbidea.

Amaitzeko, Aquarius, Eroski eta Forum Sport enpresek beraien marken publizitatearen truke eskaintzak egingo dizkigute. Esate baterako, Aquarius enpresak freskagarriak eta Eroski supermerkatuak fruta emango dizkigute. Azkenik, Forum Sportek lasterketaren amaieran egingo dugun zozketa osatzeko beraien produktu ospetsuenak eskeiniko dizkigu. Horiek horrela, irabazi iturria izango ez den arren, korrikalariei produktu hauek dohain emateko aukera izango dugu.

<b>DIRU-ITURRIA</b>	<b>URTEZ-URTEKO AURREIKUSPENA</b>
ZUMAIAKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAK	3.000€
UROLA KOSTAKO DIRU LAGUNTZA	Eskaintzen duten adina
KUTXA FUNDAZIOAREN DIRU LAGUNTZA	1.200€
FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZA	1.800€
DONAZIOAK	****
LASTERKETAKO PARTAIDEAK (DORTSALA+KAMISETA): 1000 partaide inguru izatea estimatzen da	25€ x 1000 = 25.000€
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>31.000€</b>

Bezeroen dohaintza kontuan izan gabe 31.000€ diru-sarrerak izatea da gure asmoa. Beraz, kostuak eta irabazi-iturriak aztertu ondoren 27.301,5€ rainoko dohaintza egiteko gaitasuna izango dugula uste dugu.